



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2021ko irailak 28**

**Vitoria-Gasteiz, 28 de septiembre de 2021**

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Plan Estrategikoari (PETIC)

- **2021-2024 urteetarako planak teknologia berriak kudeatzeko eredu berri bat ezartzen du, eraginkorragoa, koordinatuagoa, arinagoa eta hurbilagoa herritarrei ematen zaien zerbitzu publikoan**

Gobernu Kontseiluak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Plan Estrategikoa (PETIC) onartu du gaur 2021-2024 urteetarako. Plan horrek Euskal Sektore Publikoko azpiegituren eta komunikazioen proiektuak kudeatzeko eta garatzeko zerbitzuak, prozesuak eta metodologiak antolatu eta egituratzen ditu. Asmo handiko ekimena da, euskal sektore publiko osoaren kudeaketa-eredu komun eta konbergentea arautzen duena, eta, besteak beste, sailei, erakunde autonomoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei, sozietate publikoei, fundazioei, partzuergoei eta abarri eragiten diena.

Planak Eusko Jaurlaritzak diseinatutako eta martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuak araututako Euskal Sektore Publikoko azpiegituren eta komunikazioen gobernanta ere duari erantzuten dio. Dekretu horrek Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) arloan egitura organiko eta funtzional berria ezartzen du. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrekiko, eragile pribatuekiko eta administrazio publikoekiko harremanetan kudeaketa eraginkorragoa, koordinatuagoa, modernoagoa, hurbilagoa eta arinagoa izan nahi du arlo horretan.

PETICa Euskal Sektore Publikoaren informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredu berri bat lortzeko proiektuen garapenean gauzatzen da. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren Cloud estrategia bultzatzea, komunikazioetan segurtasuna indartzea, datuaren estrategia bultzatzea, zibersegurtasuna indartzea, Gauzen Interneten estrategia bultzatzea edo teknologia eta zerbitzu berriak sartzeko behatoki bat sortzea.

Plan horrek IKTen arloko epe ertain eta luzerako oinarrizko helburu nagusiak zehaztuko ditu, euskal sektore publikoko premiak lehenetsi eta IKT zerbitzuak ahalbidetzeko estrategia finkatuko ditu. Halaber, lehentasunezko intereseko proiektuak identifikatuko ditu, eta helburu hauek lortzeko Eusko Jaurlaritzak informazio sistemen, sare azpiegituren eta zerbitzuen edo komunikazioen arloan gauzatuko dituen ekintzak edo proiektuak zehaztuko ditu.

PETICa egitea prozesu parte-hartzaile baten emaitza izan da, eta euskal sektore publikoko IKTen arloko arduradun edo lotura duten pertsona guztiak inplikatu ditu. Horrela, plana egiteko proiektuan euskal sektore publikoko 50 agente baino gehiago sartu dira parte hartzeko 100 dinamika baino gehiagoren bidez (galdetegiak, aurrez aurreko bilerak eta bideokonferentzia bidezkoak, hausnarketa-tailerrak).

Planak ez du aurrekontu zehatzik, gauzatu beharreko ekintzak aurrekontu arruntaren bidez ordainduko baitira. Aurreikusitako proiektu bakoitza aurrekontu maila baten barruan definituta dago, behar diren baliabide ekonomikoen arabera.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### Hiru milioi euro baino gehiagoko laguntzak deitu dira bioekonomiako berrikuntza-proiektuetarako

- **Garapen sozioekonomiko jasangarria lortzeko, baliabide naturalen erabilera efizientearen bidez.**

Eusko Jaurlaritzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren agindua onetsi du. Horren bidez, bioekonomiako berrikuntza-proiektuetarako laguntzen 2021erako deialdiaren oinarriak arautzen dira. Laguntza horiek hiru milioi euro baino gehiagokoak dira, eta helburu dute arlo horretan berrikuntzako lan frogagarriak eta lan-pilotuak egitea sustatzea.

Bioekonomia jasangarritasunaren kudeaketaren zientzia da. Horren helburua da garapen sozioekonomiko jasangarria lortzea, baliabide naturalen erabilera efizientearen bidez.

Euskadi jakitun da petrolioaren osteko garairako trantsizioa bizkortu egin behar duela, ekonomia zirkularrera gerturatzea sustatu, eta lehengai berriztagarri eta baliabide endogenoen erabilerari azkar ekin.

**Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren programak gai horri zuzenean lotutako konpromiso batzuk hartzen ditu**, esaterako, “Euskadi Europako hegoaldeko bioekonomiako interesgune bihurtzea” elikaduraren eta kostalde- eta landa-garapenaren eremuetan. Bioekonomia zirkularrerantz bideratutako trantsizio hori, era berean, herrialdeko beste estrategia batzuei lotuta dago, besteak beste: Klima-aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia, Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030, Egurraren Sektoroko Plan Estrategikoa, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa eta ZTBP Euskadi 2030.

#### **Laguntza-lerroak**

Bi ezarri dira:

- Proiektu pilotuen garapenerako, 1.588.852 eurorekin.
- Proiektu frogagarriak garatzeko, 1.489.548 eurorekin.

Onuradunak enpresak izango dira, horien tamaina edozein dela ere, eta diruz lagundu ahalko diren gastuak langileei, materialei edo azpiegiturei zein ikerketatik, ezagutzaren elkartruketik, eta abarretatik eratorritakoei dagozkienak izango dira.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko dira eskabideak: <https://www.euskadi.eus/servicios/1083702>

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### Elikaduraren eta zuraren kateak bi milioi euroko laguntza jasoko du 2021ean sektorea digitalizatzeke

- **Digitalizazioan hasiberriak diren enpresei zein fase aurreratuagoetan daudenei eskainiko zaie laguntza.**

Eusko Jaurlaritzak bi milioi euroko laguntzak deitu ditu digitalizazio-proiektuak eta 4.0 teknologia ezartzeko gastu eta inbertsioetarako, Euskadiko elikaduraren eta zuraren katearen lehiakortasuna hobetu eta baliabideak optimizatzeke.

Digitalizazioa, ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza herrialdeen garapen ekonomikoaren adierazleak dira, baita beren produktibitateko, lehiakortasunerako eta hazkunde jasangarriko alderdi erabakigarriak ere. Euskadik, azken hamarkadetan zehar, ahalegin publiko-pribatua egin du Europako berrikuntzako interesgune bilakatzeko.

Sektore batzuek eraldaketa digitalerako bide hori beregain hartu eta digitalizazioari ekin diote dagoeneko, baina Eusko Jaurlaritzak hauteman du nekazaritzako elikagaien sektorea motel dabilela bere kasuistika espezifiko delako eta, esaterako, produktuaren heterogeneotasuna eta iraungipena, enpresen tamaina (gehienak ETEak eta mikro ETEak) eta haren osagai tradizionala, zeinak eragiten duen teknologia eta prozesu berriei jabetzeko prozesua geldoagoa izatea.

#### **Laguntza-lerroak eta diruz lagundu daitezkeen jarduketak**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Aginduaren bidez, honako lerro hauek ezarri dira:

- Enpresei laguntzeko beren digitalizazioaren hastapenetan. Prozesuari ekin eta sistema digitalak erabiltzen hasi nahi duten enpresek zerbitzu batzuk finantzatu ahal izango dituzte, esaterako, digitalizazio integraleko planak edo tresna digitalak ezartzea enpresaren zenbait jarduera-arloetarako, besteak beste, kudeaketarako, ekoizpenerako edo komertzializatorako.

Diruz lagundu ahalko dira, beste batzuen artean, hauek gauzatzeko diagnosien garapenerako jarduerekin zerikusia duten jarduketak: konponbide digitalen sustapena, kudeaketa aurreratuko sistemen ezarpena, produktuaren bizi-zikloaren kudeaketa, merkataritza elektronikoaren ezarpena, telelanaren sustapena, eta abar.

- Digitalizazioko fase aurreratuan dauden eta 4.0 teknologiari ekin nahi dioten enpresei laguntzeko. Diruz lagundu ahalko dira, besteak beste, enpresen digitalizazioaren diagnostika eta azpiegituren garapena, esate baterako, biltegitartzeko oinarriko funtzioak dituzten plataformak, alertak sortzea, negozioen analitikak eta txostenak egitea, zibersegurtasuneko instalazioak

eta eskuratutako tresna horiek abiarazteko behar diren prestakuntza-jarduketak.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko dira eskabideak.

<https://www.euskadi.eus/servicios/1207201>

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### Miloi bat euro I+G+b sailak sortu eta garatzeko elikaduraren eta zuraren katean

- Halaber, alderantzizko misioak ere finantzatuko dira, Euskadin I+G+b negozioak instalatzeko
- Enpresak, elkarteak edo fundazioak izan ahalko dira onuradunak

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, azken bileran, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiaren Agindua onetsi du. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko elikaduraren eta zuraren kateko eragileen ikerkuntza-, garapen- eta berrikuntza-sailak sortu eta garatzeko laguntzen 2021erako deialdiaren oinarriak onetsi dira.

Guztira, miloi bat euro izango dituzten laguntza horiek helburu bikoitza dute: alde batetik, antolakundeen barruko sistemak (batez ere, I+G sistemak) garatu eta berritu nahi dituzte, eta, bestetik, negozio berriak erakarri nahi dituzte nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna hobetzeko, baliabideak optimizatuta.

#### **Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

Lehenengo laguntza-lerroan, diruz lagunduko da sail berriak sortzea, bai bakarka, bai hainbat antolakunderen artean; dauden sailak indartzea eta hobetzea, beren balioa handitu eta gaitasun handiagoa emateko; eta sektoreko antolakundeen eta eragileen arteko ezagutza elkartrukatzea, sektorearen lehiakortasuna hobetuko duten produktu, teknologia edo baterako prozesu berrien etorkizuneko I+G+b proiektuak identifikatze aldera. Zuzkidura 800.000 eurokoa izango da.

Bigarren laguntza-lerroak beren I+G+b negozioa Euskadin instalatu nahi duten balizko interesdunen alderantzizko misioak finantzatuko ditu, lehendik Euskadin ez zeuden enpresak bertara erakartzeko. Laguntza horiek 200.000 euroko zuzkidura izango dute.

Onuradunek EAeko arratza-, elikadura- edo zur-produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko industriaren sektorekoak izan beharko dute: enpresak (beren izaera juridikoa eta tamaina edozein dela ere), elkarteak, taldeak edo fundazioak.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko dira eskabideak. [https://www.euskadi.eus/servicios/\(1207101\)](https://www.euskadi.eus/servicios/(1207101))

## Ekonomia eta Ogasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK 250 MILIOI EUROKO INBERTSIO PROGRAMA BEREZIA ONARTU DU**

Gobernu Kontseiluak gaur, asteartea, egin duen bileran, 250 milioi euroko Inbertsio Programa Berezia abian jartzea onartu du. Zenbateko horretatik, 170 milioi urte honetan bertan hasiko dira egikaritzen. Zenbateko hori batzen zaio 2021eko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuetan inbertsioetarako jasotako 1.000 milioi eurotik gorako zenbatekoari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek dira inbertsioak eta enplegua dinamizatzeko funtsezko tresnetako bat. Helburu horrekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko Aurrekontu Orokorrek egiteko helburuarekin, Gobernu Kontseiluak onartutako ekonomia- eta aurrekontu-gidalerroek —Europar Batasunaren zerga-politika hedakorrek eskaintzen duen aukera baliatuz— aintzat hartzen dute datozen urteetarako apustu handiak sustatuko dituen inbertsio-plan handi bat diseinatzea eta abian jartzea. Plan horri esker, hiru trantsizio handiei, hau da, trantsizio teknologiko-digitalari, trantsizio energetiko-klimatikoari eta trantsizio sozio-sanitarioari (azken horrek erronka demografikoa du giltzarri) erabakitasunez eta berme osoz ekin ahal izango zaie.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren nortasun-ezaugarria inbertsio publikoa izan dadin lortu nahi den arren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egungo ekonomia- eta aurrekontu-egoerari erreparatuta —zerga-arauak etetearen eta aurrekontu-betearazpenaren ondoriozkoa, diru-sarrerei zein gastuei dagokienez—, 2021eko ekitaldiaren barruan komeni da inbertsio publikoa maximizatzea eta, horretarako, baimendutako mugetara hurbiltzea, eskura dauden baliabide guztiak erabiltzea eta inbertsio plan berezi bat berehala egitea.

Azken batean, inbertsioa lehenesten jarraitu nahi da, Euskadi eralda dadin pandemiak eta osasun-estrategiak gizartearen arreta bereganatu duten garai berri honetan.

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen Inbertsio Programa Bereziaren finantzaketa diruzaintzako gerakinetatik eta aurrekontuan egindako insuldaketetatik dator batik bat —enplegua sortzen duten inbertsioak ere bultzatu ahal izateko helburuarekin—.

Ez da Eusko Jaurlaritzak 2021ean indarrean dauden Euskadiko Aurrekontu Orokorren inguruan egiten duen inbertsio publikoen arloko lehen esku-hartze gehigarria; izatez, joan den maiatzaren 18an, Gobernu Kontseiluak Lehentasunezko Jarduera Eremuen Programarako kreditu gehigarriak baimendu eta onartu zituen. Kreditu horien 180 milioi euroko funts berezi gehigarri horren bidez, Lehentasunezko Jarduera Eremuetako 25 trakzio-proiektu bultzatu dira. Ganbera honek Enkarterri, Ezkerraldea, Meatzaldea, Oarsoaldea eta Aiaraldea



eskualdeei laguntzeko egindako eskaera bati erantzuten dio proiektu horrek. Izatez, azken industria-birmoldaketek eskualde horietan izan dute inpakturik handiena, eta eskualde horietan izan du pandemiak inpaktu ekonomikorik handiena.

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpiztu Planean sartutako aurrekontu-ekimen baten bidez lurraldea berrerekatzeko jarduketa hura osatu egiten da, orain, izaera bereko baina irismen orokorragoko beste jarduera batekin, betiere autonomia-erkidegoen eskumenekoak diren gaietan inbertsio publikoari bultzada eman dakion. Horietako batzuk Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako euskal sistemaren egitura teknologikoak indartzera bideratuta daude, baita hezkuntza-azpiegituretara, osasun-azpiegituretara edo azpiegitura judizialetera ere.

Inbertsio-ahalmen gehigarri eta berezi hori 2021-2024 aldian egikaritu beharreko inbertsio-jarduera zehatzetarako erabiliko da, lehentasun hauekin:

- Gizarte-azpiegiturek: hezkuntzakoak, sozio-sanitarioak, kulturalak eta etxebizitzakoak. Proiektu horiek jasoko dute programaren % 50.
- Azpiegitura ekonomikoak: industrialak, teknologikoak eta digitalak. Helburua da industriaren eta zerbitzu aurreratuen eraldaketa eta dibertsifikazioa areagotzea.
- Azpiegitura energetikoak eta ingurumenekoak. Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoa energia berriztagarriko iturri berrien, biodibertsitatearen eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren buru izatea.

Inbertsio Programa Berezi horren bidez, Eusko Jaurlaritzak aurrekontu-neurri egokiak aktibatzen ditu plan hau abian jarri eta egikaritzeko beharrezkoak diren baliabideen erabilera erraz dadin, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia- eta finantza-legeriaren eta aurrekontu-araubidearen esparruan.

## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 15 MILIOI EURO BIDERATU DITU ITUNPEKO IKASTETXEETAN HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK KONTRATATZEKO

- **Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen autonomiarekin eta curriculumerako irisgarritasunarekin zerikusia duten funtzioak dituzte profesional hauek**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleak eskolaratzen dituzten itunpeko ikastetxeei dirulaguntza zuzenak ematea. Laguntza hauen xedea da 2021-2022 ikasturtean Hezkuntza-laguntzako Espezialistak kontratatzeak eragindako gastuak finantzatzea. Profesional hauen kontratazioa, hezkuntza-premia bereziko ikasleak gela arruntetan edo zereginak ikasteko geletan eskolatuta daudelako egiten da, behar bereziak dituzten ikasle horiei arreta eskaintzeko helburuz.

2021-22 ikasturtean kontratazio-gastu horiek ordaintzeko 15.023.114,33 euro bideratuko ditu orotara Hezkuntza Sailak, honela banatuta:

- 2021eko iraila-abendua aldirako: 3.755.778,85 euro
- 2022ko urtarrila-abuztua aldirako: 11.267.335,48 euro

Dirulaguntza hauen helburua da, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak integratzeko programa gehiago garatzea; horretarako, itunpeko ikastetxeei Hezkuntza-laguntzako Espezialistak kontratatzeko laguntzak emango zaizkie.

#### **Autonomia eta curriculumerako irisgarritasuna**

Espezialista hauek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen autonomiarekin eta curriculumerako irisgarritasunarekin lotutako zereginak dituzte, eta, horretarako, hezkuntza-arloan duten lanbide-gaitasuna ematen dute (ez dira irakasle), erreferentziatzeko Berritzeguneko aholkularitzekin lankidetzan.

Laguntza jaso dezaketen hezkuntza-premia bereziak curriculumerako sarbiderako eta honako egokitzapen-trebetasun hauekin erlazionatutako gaitasunetarako dira: norberaren zaintza; jokaera eta komunikazioa; trebetasun motorrak; komunitatearen erabilera; eta osasuna eta segurtasuna.

Hezkuntza Sailak konpromiso irmoa du hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen inklusioarekin. Desgaitasun psikikoa, fisikoa, sentsoriala edo jokabide-nahasmendu larria duten hurrek eta gazteek etxetik hurbil dagoen hezkuntza-ingurune batean egoteko eta, batez ere, bertan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko, ezinbestekoa da ikastetxeek profesional espezializatuak izatea. Horien artean, Hezkuntza-laguntzako Espezialistak izan behar dituzte, desgaitasunen bat duten ikasleen autonomiarekin eta irisgarritasunarekin lotutako hezkuntza-arloko esku-hartzean espezializatuak.

Beraz, laguntza hauek bitartekoak ematen dituzte itunpeko ikastetxeetan ere ikasteko eta parte hartzeko edozein oztopo ezabatu ahal izateko. Horrela, kalitateko hezkuntza-erantzun egokia, haien premiei egokitua eta ohiko ingurunean, bermatu ahal izango zaie elbarritasun psikiko edo nahaste autista batengatik autonomiarekin mugitzeko muga inportanteak dituzten ikasleei.

Gorago adierazitako zenbateko ekonomikoa (15 milioi euro) 2021-2022 ikasturtean baliabide hori behar duten itunpeko 209 ikastetxetan lanaldi osoko 605 Hezkuntza-laguntzako Espezialista kontratatzeko egindako kalkuluari dagokio, betiere ikastetxe horietan inskribatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kopurua aintzat hartuta.

Kontratu berriko Hezkuntza-laguntzako Espezialistek bi titulazio hauetako edozein (edo baliokideak) izan beharko dute: Gizarteratzeko Goi-mailako Teknikaria edo Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikaria. Gainera, zerbitzuak ematen dituen ikastetxeko hizkuntza-ereduaren edo ereduaren arabera hizkuntza-eskakizuna izan beharko dute.

Dirulaguntza hauek jasotzeko eskubidea Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe pribatuen titularrek izango dute, baldin eta 2021-2022 ikasturtean itundutako unitateak badituzte; betiere, Berritzeguneko aholkularien diagnostikoz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak hartzen dituzten ikastetxeak izango dira, ikasle horiek normaltasunez integratzea eta eskolako jardueretan –eskola orduetan- hauen parte hartzea errazteko laguntzaileen beharra dutenak.

## Hezkuntza

### **24,5 MILIOI EURO HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA ESKAINTZEN DUTEN ESKOLA PRIVATUETARAKO**

- **Egun Euskadin hezkuntza maila hori eskaintzen duten 276 eskola pribatu daude**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2021-2022 ikasturterako Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten titularitate pribatuko haur-eskolentzat dirulaguntzak arautzen dituen Agindua.

Hezkuntza Sailak 24.595.000 euro bideratzen ditu dirulaguntza deialdi honetara, honako helburu hauekin: aipaturiko hezkuntza zentroot mantentzen laguntzea, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten familien kuotak gutxitu eta bateratzea, eta zerotik hiru urtera arteko haurrentzako eskola horietan ematen diren hezkuntza eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea. Era berean, egun dagoen eskaintza finkatzea ere bada deialdi honen xedea.

Eskola hauek, Haurreskolak Partzuergoko haur-eskolek eskaintzen duten zerbitzuaren osagarri dira, eta haiekin batera, familia-bizitza eta lanbidea bateratzeko funtsezko zerbitzua eskaintzen diete euskal familiei.

Egun, Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten 276 zentro daude Euskadin, hezkuntza-maila hori eskaintzeko behar bezala baimenduta egonik, dirulaguntza hauen onuradun izan daitezkeenak. Joan den 2020-2021 ikasturtean, 10.986 haur zeuden eskola horietan matrikulaturik.

Dirulaguntza deialdi honetan eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

## Hezkuntza

### 3,5 MILIOI EURO UDAL HAUR ESKOLEN MANTENURAKO

- **Egun Euskadiko 13 udalerritan ari dira lanean udal titulartasuneko 18 haur-eskola**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2021-2022 ikasturtean 0 eta 3 urte arteko umeentzako haur eskolen titular diren toki korporazioei dirulaguntzak ematen dizkien Agindua onartu du. Hezkuntza Sailak 3,5 milioi euro bideratzen ditu deialdi honetarako.

Dirulaguntzak aipaturiko haur-eskola horiek mantentzeko kostuak finantzatzeko laguntza gisa emango dira, izan ere, haur eskola hauek eskaintzen duten zerbitzua funtsezkoa gertatzen baita euskal familia askorentzat, familia bizitza eta lan bizitza bateragarri egin ahal izateko.

Dirulaguntza hauen helburua da kostuak murriztea batetik, eta zero eta hiru urte arteko haurrentzako udal titulartasuneko haur-eskolen gaur egungo eskaintza sendotzea, bestetik. Era berean, bazterrean utzi ezin den beste helburu bat da ikasleei kalitatezko hezkuntza eskaintzea ere, hezkuntza-maila horiei dagozkien gaitasunak eta ezagutzak jasotzea ahalbidetuko dien hezkuntza. Udal bakoitzak jasoko duen ekarpen ekonomikoa, bere titulartasuneko haur-eskoletan okupatutako plazen arabera zehaztuko da.

Euskadin, 13 udalerririk dituzte egun euren titulartasuneko haur-eskolak, 18 haur-eskola orotara 13 udalerritan. Haur-eskola horiek ez daudenez Haurreskolak Partzuergora bildurik, dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke. Joan den 2020-2021 ikasturtean, ia mila ume izan dituzte euren geletan.

Hezkuntza Sailak eta Euskadiko udalek –laguntza hauek xede dituzten haur-eskolen titular badira, beti ere-, lankidetzeta-hitzarmenak garatuko dituzte deialdi hau egoki kudeatzeko.

## Hezkuntza

### **ATZERRIKO HIZKUNTZA INDARTZEKO LAGUNTZAK, LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETAN**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Agindu bat, heziketa zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetan 2021-2022 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak deitzen dituen.

100.000 euroko diru-kopurua duen deialdi honek laguntzak ematen ditu Lanbide Heziketako zikloetako ikasleei atzerriko hizkuntzak irakasteko, ikastetxean bertan eta eskola-orduetatik kanpo antolaturiko saioetan. Ikastaro horiek gutxienez 60 eta gehienez 100 orduko iraupena izan beharko dute, eta ikastetxeko irakasleek eurek eman beharko dituzte. Deialdi honen bidez lagundu ahal izateko, hizkuntza bakoitzeko taldean gutxienez 8 ikasle egongo dira, eta gehienez 20 (aurrez aurreko modalitatean)

Ikastaro hauek aurrez aurrekoak izan daitezke, ez presentzialak (online) edo mistoak. Mintzamina eta komunikazio-gaitasuna landuko dira bereziki horietan ikasleekin, solasaldietan eta ahozko azalpenetan ahalegina jarritz. Goi Mailako zein Erdi Mailako heziketa zikloetako ikasleek parte hartu ahal izango dute ikastaro horietan, ikastaroa antolatu duen ikastetxeetan matrikulatutako ikasleek.

Hizkuntzak ezagutu eta menperatzea funtsezko faktorea da ikasleen enplegarritasun eta mugikortasun-maila hobetzeko, enpresek merkatu globalizatuetan jarduteko gai diren profesionalak eskatzen baitituzte gero eta gehiago.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **Eusko Jaurlaritzak 500.000 euro jarriko ditu espetxeratutako pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduratzeko proiektuetarako**

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 500.000 euro jarriko ditu espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean zigortuta dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduratzeko proiektuetarako, baita askatasunaz gabetzen duen zigorraren betearazpena etenik duten pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduratzeko ere.

Diruz laguntzekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden pertsona zigortuak gizarteratzeko eta lan-munduratzeko proiektuak: esku-hartze psikoterapeutiko eta sozio-hezitzaileko programak; programatutako irteerak eta auzolandegiak; bizitegi- eta ostatu-baliabideak; drogazaleak gizarteratzeko baliabideak; prestakuntza- eta gaikuntza-zentroak; edo enplegurako orientazio- eta laguntza-zentroak. Ezinbesteko baldintza izango da proiektuak 2021. urtean egitea, akonpainamendu integralaren metodologia erabiltzea eta espetxeko zuzendaritzak aldeztu aurretik onartzea.

Oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek eska dezakete diru-laguntza, eta horretarako hilabeteko epea izango dute, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Diru-laguntzetarako 500.000 euroko zenbatekoa handitu ahal izango da aurrekontu-aukeren arabera.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

**Eusko Jaurlaritzak '2021eko Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria' emango die adineko pertsonentzako ingurune lagunkoien sorreran nabarmentzen diren erakunde publikoei edo pribatuei.**

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Matia Institutuarekin elkarlanean, eta Euskadi Lagunkoia proiektuaren bidez, deitu du **'2021eko Lagunkoitasuneko Jardunbide Egokien Saria'**.

Sari horren helburua da lagunkoitasunaren arloko berrikuntzan eta efikazian eta zahartzen diren pertsonen bizimodua errazten dieten inguruneen arloko berrikuntzan eta efikazian nabarmentzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek garatutako jardunbideak aitortzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek eta beren sektore publikoetako erakundeek aurkez ditzakete hautagaiak. Helbide soziala eta jarduera nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona juridiko pribatuak ere postula daitezke.

Osasunaren Mundu Erakundeak sustatu zuen, 2005ean, inguruneek pertsonekin duten lagunkoitasunaren inguruko mugimendua. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, ingurune lagunkoia bizimodu independentea, zahartze aktiboa eta autonomia pertsonala bultzatzen ditu, betiere osasunaren, partaidetzaren eta segurtasunaren arloko aukerak optimizatzearen bidetik, eta pertsonen bizi-kalitatea hobetze aldera.

Epaimahaiak baloraziorik onena jasotzen duen jardunbidea nabarmenduko du, eta 3.000 euroko bidaia-poltsa emango dio. Gobernu Kontseiluak deialdia onartu, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, zenbait astetako epea egongo da hautagaitzak aurkezteko. Saria urtea amaitu aurretik emango da.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **Gobernu Kontseiluak Getxoko FM irrati frekuentzia baten lizentzia lehiaketa publikoa ateratzeko oinarriak onartu ditu**

2021eko irailaren 28ko bilkuran, Gobernu Kontseiluak onartu du Getxoko 105.6 MHz frekuentziari dagokion irrati-komunikazioko zerbitzua eskaintzeko lizentzia emateko lehiaketa publikoa arautzen duten oinarriak onartzen dituen Akordioa.

Oinarri hauek, eta deialdi publiko berria, Maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irratidifusio soinudunaren plan tekniko nazionala onartzen duen irailaren 1eko 964/2006 Errege Dekretuan kokatzen dira. Dekretu horren arabera Euskal Autonomia Erkidegoak 34 FM frekuentzia esleitu ditzake. Frekuentzia hauek 2012ko eta 2019ko lehiaketetan esleitu ziren, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko azaroaren 8ko 231/2011 Dekretuaren arabera.

Zehazki, 2019ko deialdi publikoan Getxoko 105.6 lizentzia eskuratu zuen esleipendunak 2020an uko egin zion lizentziari, eta horren ondorioz aterako da berriro frekuentzia hau lehiaketara.

Izan ere, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren 27.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, lizentzia bakarra libre geratzen denean, administrazio eskudunak lehiaketaren deialdia egin behar du, hura esleitzeko, gaikuntza-titulu gehiago liberatu arte itxaron gabe. Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko azaroaren 8ko 231/2011 Dekretuaren 7.1 artikulua arabera, Gobernu Kontseiluari dagokio lehiaketaren oinarriak onartzea.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### El Consejo de Gobierno da luz verde al Plan Estratégico de Tecnologías de la Información y la Comunicación (PETIC)

- **El plan para los años 2021-2024 establece un nuevo modelo de gestión de las nuevas tecnologías más eficiente, coordinado, ágil y cercano en el servicio público que se presta a la ciudadanía**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Plan Estratégico de Tecnologías de la Información y la Comunicación (PETIC) para los años 2021-2024, que organiza y estructura los servicios, procesos y metodologías de gestión y desarrollo de proyectos de las infraestructuras y comunicaciones del Sector Público Vasco. Se trata de una iniciativa ambiciosa que regula un modelo de gestión común y convergente de todo el sector público vasco y que afecta, entre otros, a departamentos, organismos autónomos, entidades públicas de derecho privado, sociedades públicas, fundaciones, consorcios, etc.

El plan responde al modelo de gobernanza de las infraestructuras y comunicaciones del Sector Público Vasco diseñado por el Gobierno Vasco y regulado por el Decreto 36/2020, de 10 de marzo, en el que se establece una nueva estructura orgánica y funcional en el ámbito de las TIC. Pretende una gestión en esta materia más eficiente, coordinada, moderna, cercana y ágil en sus relaciones con la ciudadanía, los agentes privados y las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El PETIC se concreta en el desarrollo de proyectos para alcanzar un nuevo modelo de gestión de las tecnologías de la información y la comunicación del Sector Público Vasco. Entre ellos, el impulso de la estrategia Cloud del Gobierno Vasco, refuerzo de la seguridad en las comunicaciones, impulso de la estrategia del Dato, refuerzo de la ciberseguridad, impulso de la estrategia del Internet de las Cosas o creación de un observatorio para la incorporación de nuevas tecnologías y servicios.

Este plan definirá los objetivos básicos a medio y largo plazo en materia TIC, la priorización de las necesidades del sector público autonómico, la estrategia de provisión de servicios TIC, la identificación de los proyectos de interés prioritario, así como las acciones o proyectos para la consecución de dichos objetivos, que el Gobierno Vasco llevará a cabo en materia de sistemas de información, infraestructuras de redes y servicios o comunicaciones, incluyendo el soporte técnico en materia de medios de comunicación social.

La elaboración del PETIC ha sido fruto de un proceso participativo que ha involucrado a todas las personas responsables o relacionadas con el ámbito TIC del sector público vasco. De este modo, el proyecto de elaboración del plan ha involucrado a más de 50 agentes del Sector Público Vasco a través de más de 100 dinámicas de participación (cuestionarios, reuniones presenciales y por videoconferencia, talleres de reflexión...).

